

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ABANTO-ZIERBENAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du abenduaren 20an Abanto-Zierbenako Udalaren eta Abanto-Zierbena Zerbitzuak SL bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du; alabaina, kontularitzako zenbait doiketa azaleratu dira eta horiek zuzen erregistratzeak Diruzaintza Geldikina 714 mila euroan murriztea eragingo luke eta beste batzuek (berandutza interesengatiko sarrerak eta erregistratu gabeko premiamendu-gainkarguak) zenbatetsi gabeko zenbatekoan gehituko lukete. Kontu Orokorrean ez dira jaso aurrezki garbian aldateten egoera, eskudiruzko fluxuen egoera eta oroitidazkia. Gainera, ezin ondorioz eskuratu izan da Udalaren Balantzeko aktibo ez arrunteko kontu-sail jakin batzuen gainean.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egungo gastu-mailari eutsiz gero, behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu Hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2016an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Bai Udalak bai sozietate publikoak zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz kontraturik gabe gauzatu diren bide garbiketa, HHS bilketa eta zerbitzu osagarri, eta energia elektrikoaren hornidura-zerbitzuak.